

2014 – 12 – 7

Kaiso Olentzero. Qiero el balon

2015 – 12 – 03

Kaixo Olentzero. Ona izan naiz. Ni futbol zapatilak nahi dut. Eta anaiari panpina. Hemos cambiado casa.

2016 – 12 – 02

Kaixo Olentzero!

Oso ondo portatu naiz. Nota onak atera eta klasean lagun onak egin ditut. Oso pozik nago.

Amak lan egin nahi du, baina nik nahiago etxean egon eta eskolara akonpafiatu.

Athletiken kamiseta daukat, bakarrik nahi ditut prakak. Anaiak ez daki idazten, Vengadores Hulk panpina eskatzen du.

Eskerrik asko etortzeagatik, muxu bat!

2017ko abenduaren 4an

Kaixo, Olentzero! Yamil naiz, 8 urte ditut, eta etxean nik bakarrik dakit euskara. Anaiak badaki, baina idatzi ez oraindik. Txikia da. Familia guztirako eskatuko dizkizut opariak:

Aitak afeitatzeko makina berri bat nahi du.

Amak esaten du ez duela ezer nahi, lana daukalako.

Mohamedentzat Spidermanen disfrazak ekarri.

Nik entrenatzeko motxila bat nahi dut, eta beste bat berria eskolarako ahal baduzu.

Aitite eta amama Grezian daude, eta ez dakit zer nahi duten. Bidali gozokiak.

Nota onak atera ditut eta Mohamed ondo portatzen da. Mila esker!

Santurtzin, 2018ko azaroaren 29an.

Kaixo, Olentzero:

Yamil naiz.

Kurtso honetan asko ikasi dut, nota onak atera ditut eta ekipoan gol asko sartu ditut. Titularra naiz eta igandero jokatzeko dut. Baina borrokatu dut klaseko lagunekin esaten dutelako Athleticen ezin naizela jolastu, Sirian jaio nintzelako eta ez Bilbon. Mikelek esan dit bere aitak ez duela lanik nireak lapurtu diolako. Galdetu diot aitari eta aitak ez du ezagutzen Mikelen aita.

Josuk esaten du ez zarela existitzen, baina nik ez diot sinesten, urtero etorri zarelako. Bueno, kanpamentuan egon ginenean ez zinen etorri, baina bakarrik Euskal Herrian lan egiten duzulako.

Ikusi duzu nola idazten dudan orain? Andereñoak esaten du letra polita dudala, eta oso ondo hitz egiten dudala euskaraz. Baina eskolan lagunak ez dira ondo portatzen nirekin. Amak ez du orain lan egiten eta aitak lana aldatu nahi du. Esaten dute berriro aldatu behar dugula etxetik. Horregatik idazten dizut orain.

Etxetik joaten bagara, jakingo duzu nora bidali opariak? Nik hemen geratu nahi dut. Kanean lagun asko daukat, eta entrenamenduan ondo pasatzen dut. Badakit batzuetan lagunekin borrokatzen dudala, baina ez dut etxetik joan nahi, eta ez dut nahi kanpamentura bueltatu, hor hotz handia egiten zuen eta. Aitak eta amak esaten dute aitite eta amama ez daudela Grezian, Siriara eraman dituztela berriro. Nik ez dut nahi Siriara joan. Ez naiz akordatzeko nola zen jaio nintzenean, baina telebistan ikusi nuen eta gerra dago hor. Nik hemen geratu nahi dut. Aitak eta amak esaten dute asko ikasteko, handia naizenean pertsona inportantea izateko, eta horrela errespetua irabaziko dudala eta ez dudala gosea pasatuko. Ez dut ondo ulertzen, baina kasu egiten diet, eta saiatzen naiz errespetua irabazten, baina klaseko lagunak beti portatzen dira txarto nirekin. Bueno, Maider eta Jokin ez. Horiek beti nire alde.

Zuri galdetu nahi dizut gauza bat. Andereñoari galdetu nahi nion, baina seguru aitari eta amari kontatzen diela. Zuk ez esan, mesedez. Handia naizenean, asko ikasten badut, inportantea izango naiz eta ez

naiz inoiz beste kanpamendutan egongo? Gerra gehiago egongo dira? Eta inportantea banaiz gelditu ahalko ditut? Telebistan ikusi nituen etxeak apurtuak eta ume bat kamilla batean, zikin eta zauriz eta odolez beteta. Amets txarrak izan ditut. Hemen dena oso garbi dago, eta dendak daude, gozokiak erosteko eta fruta eta ogia. Kanpamenduan ez zegoen hori, eta kamioi batek ekartzen zuen ura eta ogia. Oinez ibiltzen nintzen asko eta gure taldeko futbol zelaian baino lokatza gehiago zegoen. Andereño asko maite dut, oso ondo portatzen da nirekin, baina ez dizkiot gauza hauek kontatu nahi. Zu magikoa zara, eta ulertuko duzu guztia. Eragin ahal duzu gerra amaitzea? Baina ez dut nahi Siriara joan, e? Zuk amaitu gerra horiek, eta nik jarraituko dut ikasten. Futbolari ona naizenean partidu guztiak irabaziko ditut, eta inportantea izango naizenez esango diet gerra gehiago ez egiteko inon.

Beste gutun bat idatziko dut opariek. Aitak eta amak esan didate zuri emateko parkean zaudenean. Gutun hau buzoian sartuko dut, eta parkean zu ikusi baino lehen jasoko duzu. Elkarrekin gaudenean ez dizut ezer galdetuko, norbait entzun ahal duelako, zuk hitz egin nirekin beste umeekin bezala. Gabonetan eskatzen dizkizudan opari guztiak ekartzen badituzu Josuri baietz, existitzen zarela esango diot.

Mila esker guztiagatik, Olentzero. Muxu handi bat.

Txosten zkia: 8655 – 1224H 34

Herrialdea: Bizkaia

Herria:

Santurtzi

Data: 2019/12/20

Aztertzaileren zkia: A-5370-04

Rebeka Ruiz de Aranoa Lopez andereak, 768883-J NAN zenbakidunak eta Gizarte Laguntzarako langile publikoak, dagokion tribunalari bideratzen diot Al-Saffar familiari egindako azterketa, Bizkaiko Aldundiak bere gain hartzeko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eskaera.

- Familia honen lau partaideak 2014tik daude Bizkaian errolatuta. Hauetako hiruren jatorria Sirierra da, hango gerra egoeratik ihes eginik heldu ziren aipatutako urtean. Halere, errefuxiatuen estatusa ez daukate errekonozitua Espainiaren gobernuaren aldetik. Semerik txikiena Greziako Lesbos hiriko errefuxiatuen kanpamentuan jaio omen zen, nahiz eta hango instituzioetan ezin izan zuten erregistrorik egin. Espainian lortu dute umearen nazionalitatea. Berez Europako biztanlea da, eskubide osoz, eta ondorioz bere kargua hartzen duten tutoreak, gurasoak kasu, baita ere.

- Familiako tutoreek ez dute inolako kargurik justizia edo administrazioarekin. Ziurtatzen dut atxikitako dokumentuetan.

- Familiaren egoera ekonomikoari erreparatuz Eusko Jaurlaritzak ezarritako pobrezia mugan daude. Bi arduradun nagusiek erdi mailako ikasketak izan arren, Europako Batasuneko titulazioen zerrendarekin ezin dira bere maila akademikoak homologatu. Aldi baterako lanak aurkitu dituzte bost urte hauetan zehar, baina une honetan biak daude langabezian, eta langabezi saria bi hilabetean amaitzen zaie. Haien Gizarte Segurantzaren lan-bizitzaren kopia doa gutun honekin.

- Egoera soziala aztertuta, bazterketan erortzeko arriskua benetakoa da. Auzokideekiko harremana "ona" edo "arazorik gabea" izan arren, beste seniderik edo herrikiderik hurbilean ez izateak eragozten die egunerokotasunean elkarbizitza normal bat eraikitzea.

- Bi adingabeak osasuntsu eta ondo elikatuta daude. Biak auzoko eskola publikoan daude matrikulatuta eta kurtsoetako tutoreekin hitz egiteko aukera izan dut. Lehen Hezkuntzako bosgarren kurtsoan den Yamilen irakasleak sinatzen ditu atxikitzen ditudan ikasle honen notak eta profil akademikoa, ikasle bikaina den seinale.

Jaun-andreok, Al-Saffar familiari Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ematea ezinbestekotzat jotzen dut haien egoera are prekarioago bihur ez dadin, prestazio ekonomiko honen funtsa bazterketa soziala eta honek ekarri ahal dituen elkarbizitza arazo larriak ekiditea uste baitut.

Egindako azterketa eta datuak kontuan izango dituzuefakoan, agur eta erdi;

Rebeka Ruiz de Aranoa Lopez